

16/06/2009

Ezkio-Itsaso 'Landareekin jolasean' tailerra egingo da Igartubeti baserrian

Ekaineko hirugarren tailerra egingo da datorren larunbatean Igartubeiti Baserri Museoan eta hau ere, aurreko biak bezala, kolean aurrera eramango da, ahal bada, eguraldi ona aprobetxatuz.

Baratzean haziak landatzen aritu ziren umeak orain dela bi aste, eta aurreko larunbatean baratzeko lanei buruzko tailerra aurrera eraman behar zen, baina ez zen posible izan. Bero izugarria egin zuen larunbatean arratsaldean eta Igartubeitira ume bakarra hurbildu zen tailerrean parte hartzeko. Horrela, bertan behera geratu zen. Dena den, oraindik bi asteburu gelditzen dira ekaina amaitu arte eta hauetan ere tailer didaktiko desberdinak aurrera eramango dira.

Larunbat honetan, hilak 20ean, Landareekin jolasean tailerrean parte hartzeko aukera izango dute famili eta umeek; eta hurrengo asteburuan, Gailetan egiteko tailerra izango dugu Igartubeitin. Azken honekin batera, eta hilabeteko azken larunbata dela kontutan izanik, Igartu meriendaz disfrutatzeko aukera ere izango dute gaztetxoek, oraingo honetan txokolatada egongo delarik.

Ordutegia, aurreko asteetakoaren berdina izango da: arratsaldeko 16:30ean hasiko dira tailerrak eta 18:30ean amaitu. Ekainaren 27an arratsaldeko 19:00etan amaituko da, azkeneko orduan merienda jateko aukera izango dutelarik.

Izena emateko 943 72 29 78 telefonora deitu beharko da.